

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Salcedon, Lantarón udalerrian, Ekiola parke fotovoltaikoa ezartzeko lurzoru urbanizaezineko plan berezia behin betiko onartzea

2023ko maiatzaren 22an, Añanako Ekiola, S. Coop. enpresak Salcedon Ekiola parke fotovoltaikoa ezartzeko lurzoru urbanizaezineko plan berezia aurkeztu zuen Lantarongo Udalean.

Plan bereziaren xedea da Lantarongo udalerriaren hegoaldean, Zubillagako poligonoaren ipar-ekialdean, dagoen hirigintza eremu bat zehatz-mehatz mugatzea eta antolatzea, Salcedoko Administrazio Batzarraren jabetzako partzela batean. Lurzatiak, 35-6-425 A eta B katastroko erreferentzia duenak, 52.537 metro karratuko azalera du guztira, eta horietatik parkeak 37.610 metro karratu hartzea aurreikusten da. Udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lursailak dira, honela kalifikatuak: 2. zona "Nekazaritza eta abeltzaintzako babes eremua substratu hauskorren gainean". Bestalde, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) izapidetzen ari da. Plan horren araudiak jasotzen duenez lursailak honela daude kalifikatuta: 4. zona "Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabal. Trantsizioko landa paisaia."

Ekiola proiektua kontsumo eredu kooperatibo bat da, eguzki parkeen bidez erabiltzailearengandik hurbil dauden energia jasangarriko azpiegiturak ahalbidetzen dituena. Kooperatibako kideak instalazioen jabe izango dira eta kontsumitzen duten energiaren pareko energia bolumena sortuko dute, sortutako elektrizitatearen prezioa hobetzeko asmoz. Parkeetatik hurbil dauden herritarrek kooperatiban parte hartzeko aukera izango dute, panelak esleituta, identifikatuta eta gertuko kudeaketarekin edukitzea lortuz, non kontrola, informazioa, protagonismoa eta parte hartzea izango duten.

Añanako Ekiola, S. Coop. sustatzailea Enargi Araba, SA foru sozietate publikoak, Energiaren Euskal Erakundeak (Cadem) eta Kreañ Taldeak osatzen dute, energia komunitate kooperatibo bat eratzeke helburuarekin. Herritarrek energia berriztagarriak sortzen parte har zezaten bultzatzeko, 2021eko ekainaren 21ean lankidetzaproto-kolo bat formalizatu zen Ekiola Energia Sustapenak SLren eta Enargi SAreñ artean, Ekiola kooperatibek Arabako kuadrilla bakoitzean sustatutako eguzki-parkeen proiektuak garatzen laguntzeko.

Añanako Ekiola parke fotovoltaikoak 4,1 MWp-ko gehieneko potentzia instalagarria izango du, eta urtean 5.326 MWh-ko ekoizpena zenbatetsi da.

Lantarongo Udalak, 2023ko uztailaren 28ko 136 zenbakiko Alkatezaren Dekretuaren bidez, honako hau ebatzi zuen: "Hasierako onespina ematea 4.100 kW-ko (4,1 MWp) iEkiola parke fotovoltaikoaren lurzoru urbanizaezineko Plan Bereziari (ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin beharko zaio). Parkeak 4.500 KVA-ko transformazio-zentroa izango du eta 13,2 kV-ko tentsio ertaineko airetiko linea elektrikora konektatuta egongo da lurzatiaren mendebaldean dagoen zutoin batean, plan berezi horren eremutik kanpo, lurpeko ebakuazio-linea baten bidez. Konexio hori katastroko erreferentziazko 35-6-425 A eta B lurzatiaren kokatuko da, Salcedoko jurisdikzioko Berocedo parajearen, eta herri horretako administrazio batzarraren jabetza izango da. Añanako Ekiola, S. Coop-ek sustatuko du, Kreañ, S. Coop enpresako Larraitz Sasiain Sesma arkitektoak idatzita, Arabako Foru Aldundiko (AFA) ingurumen organoak emango beharko duen plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren ingurumen txosten estrategikotik ondorioztatzen denaren arabera."

Jendaurrean jartzeko hogeiei eguneko epea irekitzea onartu zen, interesdunek alegazioak egin ahal izateko, hasierako onarpen hori jakinarazteko eta sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei txostena eskatzeko. Iragarkia 2023ko abuztuaren 11ko ALHAOn (94 zk.), data bereko El Correo egunkarian, udalaren iragarki taulan eta egoitza elektronikoan (www.aytolantar.com) argitaratu zen. Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu.

2023ko abuztuaren 2an, plan bereziaren hasierako onespina jakinarazi zitzaion Salcedoko Administrazio Batzarrari, eta txostena eskatu zen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Jasota dago entitatearen fede-emailean ziurtagiria, kontzeju irekiak 2024ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakiaren berri ematen duena. Erabaki horren bidez baimena eman zitzaion Añanako Ekiola, S. Coop. sozietateari parke fotovoltaikoaren ebakuazio linea lurperatzeko.

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatuaren irailaren 6ko 76/2023 Foru Aginduaren bidez (2023ko irailaren 20ko ALHAO, 111 zk.), plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egin zen. Ondorioen atalean ezartzen da Plan Bereziaren hirigintza agiriaren araudian sartu behar direla ingurumen dokumentu estrategikoan jasotako ingurumen arloko neurri babesleak eta zuzentzaileak. Era berean, plana behin betiko onartzeko hirigintza agiriaren txertatzeko egokitzat jotzen diren neurri gehigarri batzuk zehazten dira.

Idazkari kontu-hartzaileak plana behin-behinean onartu aurretik emandako 2024ko martxoaren 4ko txostenean jasota dago Añanako Ekiola, S. Coop. sustatzaileak, urte bereko otsailaren 6an, Lantarongo Udalari plan bereziaren dokumentua aurkeztu ziola, alde emandako txostenekin eta ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatutik eratorritako ingurumen alderdiekin bat etorriz, 76/2023 Foru Aginduan jasotzen diren proposatutako neurriak eta baldintzak txertatuz.

2024ko martxoaren 13an egindako osoko bilkuran, Lantarongo Udalak aho batez erabaki zuen lurzoru urbanizaezineko plan berezia behin-behinean onartzea, eta espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari (EAELAB) bidaltzea, txostena egin dezan.

EAELABek, bako Hirigintza Plangintzako Atalaren maiatzaren 17ko 2/2024 bilkuran, espedientearen aldeko txostena egitea erabaki zuen. Era berean, Uraren Euskal Agentziaren (URA) txostenak zehazten du ez dagoela eragozpenik, eta ez dela oharrik egin uren gaiei dagokienez. Bestalde, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuak, 2024ko maiatzaren 28ko txostenean, adierazi du, Nekazaritzako Eragin Sektoriala Ebaluatze Protokoloaren (ESEP) emaitza kontuan hartuta, proiektu honek sortutako inpaktua bateragarritzat jotzen dela Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialean (LPS) ezarritakoaren arabera, proposatutako neurri zuzentzaileak kontuan hartuta, eta plan bereziaren eremuak trantsizioko landa paisaiako Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala kategorian sailkatutako lurzoria barne hartzen duela eta ez diola balio estrategiko handiko lurzoriari eragiten.

2024ko uztailaren 1ean, Lantarongo Udalak Salcedoko Ekiola parke fotovoltaikoaren lurzoru urbanizaezineko plan berezia behin betiko onartzeko eskaera aurkeztu zion Arabako Foru Aldundiari, Añanako Ekiola, S. Coop. sozietateak sustatuta.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Plan bereziaren xedea 37.610 metro koadroko eremua antolatzea da, "Añanako Ekiola" izeneko parke fotovoltaikoa ezartzeko. Plan bereziaren eremua lurzoru urbanizaezinean dago, Lantarongo 6. poligonoko 425. lurzatiaren zati batean. Lurzati horrek, bere osotasunean, 52.537 metro koadroko azalera du, baina plan bereziaren eremuak lurzatiaren hego-ekialdeko zatia baino ez du hartzen, udalerraren hegoaldean eta Zubillagako industrialdearen ipar-ekialdean. Plan bereziak energia berriztagarri fotovoltaikoko instalazio bat proposatzen du, 4,1 MWp-ko potentzia instalagarri maximoa izango duena. Lurzatiak sarbide bat du, eta aireko linea elektriko batek zeharkatzen du iparraldeko muturrean, planaren eremutik kanpo. Lursail horretan kokatutako zutoineraino lurpeko linea elektriko bat proposatzen da, planta fotovoltaikoa konektatzeko.

Instalazio horrek energia ez-berriztagarriarekiko mendekotasuna murrizten lagunduko du, eguzki energia berriztagarria erabiliz, baliabideen kudeaketa jasagarria lortzeko. Lurztiaren titulartasuna Salcedoko Administrazio Batzarrarena da, eta Añanako Ekiola, S. Coop. sustatzaileak errentan hartuko luke.

Plan bereziak hiru eremutan banatzen du eremua, erabilera nagusi eta bateragarri bereiziekina, eta debekatutzat jotzen ditu horien artean ez daudenak. Erabilera nagusi eta bateragarriak, eremua arabera, honako hauek dira:

– “Plaka fotovoltaikoen eremua” 31.188 metro koadroko eremuari dagokio, eta bertan plaka fotovoltaikoak eta inbertsoreak jar daitezke. Erabilera nagusia: zerbitzu azpiegiturak, parke fotovoltaikoen modalitatean; Erabilera bateragarriak: espazio libreak, berdeguneak eta lurpeko linea elektrikoak.

– “Sartzeko gunea eta Transformazio Zentroa (TZ)” Planta fotovoltaikora sartzeko eremuari dagokio. Gune horretan, transformazio zentroa hartuko duten etxolak jarri ahal izango dira, eta aparkalekuak prestatu ahal izango dira. Erabilera nagusia: planta fotovoltaikorako sarbidea eta transformazio zentroa; Erabilera bateragarriak: berdeguneak, aparkalekuak eta lurpeko linea elektrikoak.

– “Plaka fotovoltaikorik gabeko eremua” Plantaren ertzeko eremuak dira, berdeguneetara bideratuko direnak. Erabilera nagusia: berdegunea eta pasabidea instalazioa mantentzeko; Erabilera bateragarriak: lurpeko linea elektrikoak.

Bigarrena. Plan bereziak 19 artikuluz osatutako araudia jasotzen du, lau titulutan banatuta: lehenengo tituluak xedapen orokorrak ditu (1etik 3ra bitarteko artikulua), bigarrenak hirigintza araubidea ezartzen du, bai kalifikazio xehatuari dagokiona (4tik 8ra bitarteko artikulua), bai egikaritze araubideari dagokiona (9tik 12ra bitarteko artikulua), hirugarren tituluak instalazioaren eta urbanizazioaren arau partikularrak ezartzen ditu (13tik 17ra bitarteko artikulua), eta laugarrenak hirigintza antolamenduari gainjarritako baldintzatzeileak aipatzen ditu (18. eta 19. artikulua).

Plan bereziak espazioen antolamendurako baldintzak ezartzen ditu, bai eta horien erabilera eta eraikuntza araubidea ere, lehen azalduetako hiru eremuen arabera.

6. artikulua plaka fotovoltaikoen eremuari buruzkoa da, eta plaka fotovoltaikoen 31.188 metro koadrotan gehienez hartuko duten azalera ezartzen du, baita plaken eta inbertsoreen mugetarako 5 metroko tartea, eta plaken gehieneko altuera ere, 3 metrokoa. Halaber, plano honetara igortzen da: “PO.02. Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak”, instalazioaren gehieneko inguratzaileari dagokionez.

7. artikulua, sartzeko guneari eta TZari buruzkoa, gehienez ere 100 metro koadroko eraikigarritasuna ahalbidetzen du solairu bakar batean, gehienez ere 4 metroko garai izango dena, eta 10 metroko tartea izango duena mugetara, transformazio zentro bat edo lotutako beste instalazio batzuk hartzeko. Hori da plan bereziak baimentzen duen eraikigarritasun bakarra. Halaber, PO.02 planora igortzen da.

Aipatu behar da kontraesan bat dagoela irudikapen grafikoaren eta araudiaren artean, plaka fotovoltaikoen mugetarako gutxienezko tarteari dagokionez. 6. artikulua 5 metroko tartea ezartzen du, baina antolamenduko planoek 8 metrotan finkatzen dute. Plan bereziaren dokumentazio osotik ondoriozta daiteke 6. artikulua zuzendu behar dela mugetara 8 metroko tartea ezartzeko. Era berean, 8. artikuluan beste akats bat antzeman da plaka fotovoltaikorik gabeko eremua honela definitzen denean: “Perimetroko itxituren gehieneko mugaren eta instalazioaren gehieneko inguratzailearen artean geratzen den eremuari dagokio”. Definizio hori ez dator bat antolamenduko planoen irudikapen grafikoarekin; izan ere, PO.02 planoan marraztutako itxitura eta inguratzaile lerroen emaitza 3 metroko zabalera zerrenda da, eta ez dator bat “PO.01. Zonakatzeko xehatua” planoan berdez jasotako plaka fotovoltaikorik gabeko eremuarekin.

Bestalde, adierazi behar da 12. artikulua, partzelazioari buruzkoak, adierazten duela hirigintza partzelazioak edo beste edozein motatakoak debekatuta daudela, eta soilik onartzen direla aplikatu beharreko legeria orokorrean ezarritako irizpideen arabera egiten diren lurzati nagusien banaketak eta zatiketak. Era berean, Nekazaritza eta Basogintzaren LPSaren 11. artikulua aipatzen da. Artikulu horrek adierazten du ez dela baimenduko ukitutako finken banantzerik, baldin eta horren ondorioz laborantza unitate minimoa baino azalera txikiagoa duten lurzati edo finka berriak sortzen badira, salbu eta lehendik dauden beste nekazaritza ustiategi batzuei atxikiko zaizkiela bermatzen bada.

Azkenik, 15. artikulua honako hau adierazten du: "Instalazioak, ahal dela, sarbide bakarra izango du landa lursailletara sartzeko asfaltatu gabeko bidetik," eta 17. artikulua honako hau dio: "Planta fotovoltaikoa eraikitzeke proiektuak zehatz-mehatz zehaztuko du zer hesi perimetral diseinatuko den basa-faunaren gaineko inpaktuak minimizatzeko eta haren zirkulazio askea bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) ezartzen duten bezala".

Hirugarrena. EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunetz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Laugarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatuaren 76/2023 Foru Aginduaren bidez egindako ingurumen txosten estrategikoak (2023ko irailaren 20ko ALHAO, 111 zk.) behin betiko onartzeko aurkeztutako hirigintza agirira eraman diren alderdi batzuk jasotzen zituen.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak Lantarongo HAPO behin betiko onartu zuen 2021eko abuztuaren, baldintzekin eta zati batean bertan behera utzita (2021eko irailaren 10eko ALHAO, 103. zk.). Hala ere, araudia ez zen argitaratu, eta, beraz, gaur egun HAPO ez dago indarrean eta bai, ordea, arau subsidiarioak. Lantarongo arau subsidiarioak behin betiko onartu ziren abenduaren 3ko 1158/2002 Foru Aginduaren bidez (2003ko urtarrilaren 17ko ALHAO, 6. zenbakia). Indarrean dauden arau subsidiarioetan, plan bereziaren muina den eremua lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago, eta urbanizaezin gisa sailkatuta dago "Substratu hauskorren gaineko nekazaritza eta abeltzaintzako babes eremua" 2. zonan. 2. zona hori honela definitzen da: "gaitasun gutxiko harrizko oinarria eta gehiegizko malda (ehuneko 12 eta ehuneko 20 artekoa) izateagatik, bai eta erabilera tradizionalen baldintza bereziengatik ere, ezaugarri bereziak dituen baimendutako erabilera eta eraikinen tratamenduari dagokionez".

Arau subsidiarioen 201. artikulua 2. zona horretan baimendutako erabilerak eta jarduerak ezartzen ditu, eta horien artean daude onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak, baldin eta baldintza jakin batzuk betetzen badituzte. Alde horretatik, energia berriztagarriak berariaz aipatzen ez badira ere, lortu nahi diren baldintzekin pareka daitezkeela esan daiteke. Era berean, 202. artikulua hirigintza parametroak ezartzen ditu landa-lurzoruan kokatu behar diren onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinetarako. Arau subsidiarioen artikulua hori eraikinetarako pentsatuta dago, baina ez plaka fotovoltaikoetarako. Nolanahi ere, transformazio zentroak izango lirateke eraikintzat har litezkeen elementu bakarrak, eta arau subsidiarioetan eta plan bereziaren proposamenean ezarritako eraikigarritasun baldintzei dagokienez, ezin da eragozpenik jarri.

Seigarrena. Dokumentua, Lantarongo udaleko hirigintza plangintzan ezarritakoa eta aplikatu beharreko lurralde antolamendua aztertu ondoren, indarrean dagoen antolamendua betetzen duela uste da. Hala ere, 6. artikulua aldatu behar da, plaka fotovoltaikoen eremuaren mugetara 8 metroko tartea egongo dela ezartzeko, eta 8. artikuluan plaka fotovoltaikorik gabeko eremuaren definizioa aldatu behar da, antolamenduko planoekin dauden kontraesanak konpontzeko.

Zazpigarrena. Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzorian, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira".

Ildo beretik, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikulua xedatzen duenez, "lurzoru urbanizazinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru aldundiak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit eguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

2/2006 Legea garatzen duen Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 4.3 artikulua aplikatu behar da. Bertan, ondokoa jasotzen da: "3. Aurreko paragrafoan adierazten diren eta, gainera, ingurumen-inpaktuaren banakako deklarazioa behar duten jardunak eta 5.000 metro karratu baino gehiagoko lurzoruak eraginpean hartzen dituzten jardunak baimentzeko, gehigarri gisa, plan berezi bat idatzi eta onartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan adierazten denarekin bat etorritik. Plan hori behin betiko onartzeko ahalmena Foru Aldundiak baldin badu, interes publikokoa dela adierazten duen deklarazioa inplizituztat hartuko da, betiere aurretiaz plana jendaurrean jakinarazi baldin bada".

Zortzigarrena. Jarduera bat landa-lurzorian koka dadin, nahitaez arrazoitu behar da landa-ingurunean kokatu behar dela. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 28.3 artikulua honela dio: "Lurzoru urbanizaezin modura sailkatutako lursailetan, erabilerak onargarriak izango badira, honako eskakizun hauek bete beharko dira: erabilera horiek egokiak eta beharrezkoak izan behar dute, lurzoria arrazoizko eran eta bere landa-izaerarekin bat etorritik erabiltze aldera; ezin izango dute lurzoruaren eraldaketarik eragin; ezin izango dira hirigintza-helburuetarako erabili".

Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartutako LAGek, erabileren matrizean, xedatzen dute "B motako instalazio tekniko ez-linealak" -erabilera horretan energia berriztagarrien instalazioak sartzen dira, hala nola fotovoltaikoa eta antzekoak (2.c.4. Azpiegiturak)-erabilera onargarria direla nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoruen eta landazabalaren kategorian, eta Nekazaritza eta Basogintzaren LPSan xedatutakoari lotzen zaizkio. LPSak zehazten du instalazio horiek erabilera onargarria direla trantsizioeko landa paisaia gisa kategorizatutako lurzorian, betiere nekazaritzaren arloan eskumena duen organoaren txosten batek abalazten badu. Txosten horrek kontuan hartu beharko du nekazaritzako eta basogintzako jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak sartu beharko ditu ESEparen baldintzetan.

Bederatzigarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, kontuan hartu behar da proiektuaren xedea, hau da, energia elektrikoa modu garbian eta berriztagarrian ekoizteko parke fotovoltaiko bat, energia komunitate kooperatibo gisa eratutako erakunde batek sustatua.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 2.2 artikuluan ezartzen duenez, "Energia elektronikoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da". Instalazioaren ezaugarri zehatzei dagokienez, energia berriztagarrien eta energia trantsizioaren araudia aplikatu behar da.

Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak energia-hornikuntzak eta haren erabilerak pertsonen bizitzarako duten berezko izaera jasotzen du, eta energia berriztagarriak azpimarratzen ditu. Lege horren helburuen artean nabarmentzen dira energia kontsumoa murriztea, jasangarritasun energetikoa bultzatzea eta sustatzea eta ingurumena babestea, energia berriztagarriko instalazioak ezarriz. Legearen 4. artikulua "iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren definizioa jasotzen du, eta iturri ez-fosiletatik eskuratutako energia gisa definitzen; halaber, berariaz aipatzen ditu energia eolikoa, hidraulikoa, geotermikoa, eguzki-energia eta beste batzuk." Lege beraren 5. artikulua lege horren helburuak ezartzen ditu, eta b) apartatuan honako hau jasotzen du: "energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko".

LAGen arabera, energia berriztagarriak gero eta gehiago txertatu behar dira gure lurraldearen eraikuntzan. Memorian, baliabideen kudeaketa jasagarriari buruzko 8. kapituluak honako hau zehazten du: “energia-efizientzia eta energia berriztagarriak dira Euskadiko 2030 Energia Estrategiaren (3E2030) bi ardatz nagusiak, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bermatzeko. Lurralde-estrategiaren energiaren alorrean beste zenbait erronkari ere heldu behar zaie, hala nola energia-eraginkortasunaren eta -efikaziaren igoera nabarmenari; deskarbonizazioari, energia berriztagarrien iturrien erabilera orokortuz; eta energia-autosufizientziarantz aurrera egiteari (...).

Hortaz, energia-efizientzia eta energia berriztagarriak dira Euskadiko Energia Estrategiaren bi ardatz nagusiak, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bermatzeko (...).”

Aurreko legeriaren ildotik, Landa Garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legeak 6. artikuluan jasotzen ditu landa-lurzoruko politika instituzionalen helburu sektorialak. E) apartatua landaguneetako eta landa entitateetako oinarritzko azpiegituren arloko helburuak jaso dira, eta hauek aipatzen dira, besteak beste: “Energia berriztagarri eta jasagarriei lotutako azpiegituren garapena indartzea, (...) eta iturri berriztagarri eta jasagarrietatik sortutako energiaren autosorkuntza eta autokontsumoa erraztea, bai landa-guneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan.”

Estatuan, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legea lotuta dago arlo horretako Europar Batasunaren helburuekin eta Itun Berdearen hazkunde-estrategiarekin. Hala, erabaki hau nabarmentzen du: “klima aldaketaren aurkako borroka eta energia trantsizioa ekintza politikoaren erdigunean jartzea, etorkizuna eraikitze eta ekonomia eta gizarte aukera berriak sortzeko ekonomiaren eta gizartearen giltzarri gisa. (...) legeak ziurtatu behar du 2050 baino lehenago negutegi efektuko gas emisioen neutraltasuna lortzea Espainian, baita energia sistema efiziente eta berriztagarri bat ere (...).”

Zehazki, 3. artikuluan ezartzen dira “2030erako nazio mailako gutxienezko helburuak, bereganatutako nazioarteko konpromisoak betetzeko, eta autonomia erkidegoen eskumenak gorabehera:

- a) 2030erako, Espainiako ekonomia osoko negutegi efektuko gas emisioak gutxienez ehuneko 23 murriztea 1990ekoekin alderatuta.
- b) 2030ean, jatorri berriztagarriko energien kuota azken energia-kontsumoan gutxienez ehuneko 42koa izatea.
- c) 2030ean, sistema elektrikoan jatorri berriztagarriko energien sorkuntza gutxienez ehuneko 74 izatea. (...).

2. 2050 baino lehenago, eta betiere ahalik eta epe laburrean, Espainiak klima neutraltasuna erdietsi beharko du (...) eta sistema elektrikoa, bakar-bakarrik, jatorri berriztagarriko sorkuntza iturrietan oinarritua izan beharko da. (...).”

Era berean, eguzki-energia fotovoltaikoan oinarritutako energia berriztagarria sortzeko instalazioak aurreikusita daude Energia eta Klimaren 2021-2030eko Plan Nazional Integratuan, zeina Ministro Kontseiluaren 2021eko martxoaren 16ko erabakiaren bidez onetsi baitzen.

Hamargarrena. Azaldutakoa ikusita, Añanako Ekiola, S. Coop. enpresak sustatutako proiektuaren interes publikoa justifikatzen da. Jardueraren izaera dela-eta, kokapen zehatz horretan finkatu behar da, tokia bat datorrelako beharrezko azpiegituren berezko ezaugarriekin.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Salcedon, Lantaróngo udalerrian, 35-6-425 katastro erreferentzia duen lurzatian, Ekiola parke fotovoltaiko bat ezartzeko lurzoru urbanizaezineko Plan Bereziaren espedientea behin betiko onartzea, honako baldintza hauekin:

1. 6. artikulua aldatzea, mugetara 8 metroko tartea ezartzeko.
2. 8. artikuluko plaka fotovoltaikorik gabeko eremuaren definizioa aldatzea.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan, espedientea AFari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailearen 29a

*Lurralde Oreka*ren eta *Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA